

Aurtengo Madalenetan euskal antzerkia

hauxe da aurtengo Madalenetan izango den nobedadeetako bat: euskal antzerkia. Izan ere Ereintza Antzerki Taldeak prestatuta, Imanol Eliasek idatzitako Urkiola antzezlan-a aurkeztuz bi emanaldi izango dira uztailearen 23an Erretereria Hiri Kultur Zentruan.

Urkiola

Sorgin munduan eta sorginkeriei buruzko sineskerietan murgilaraziko gaituen lana da ereintzatarrek taularatuko dutena. Urkiola inguruan kokatutako lanak gure Euskal Herrian sorginen kontuak bizitzeko era, joera eta jarrera desberdinak isladatzeko bideak zabaldu ditu egileak. Batzuek fidakaitz eta hotz antzera azalduko diren arren, inguru horietan gertatzen diren ezbehar guztiak sorginek eraginda izan direla sinesteko ez dute inongo oztoporik izango beste batzuek. Egileak erakusten duenez, garai hartako herritarrengan jakinmin handia sortarazten duen gertaera da. Zugarramurdi, Murumendin eta hainbat lekutan kokatu izan dituzte sorginak eta Anbotokoak erakusten du, ikusten denez, antzezlan bat eskaintzeko hainbateko aukera.

Antzezlariak

Antzezlanak horrela eskatuta, jendez ongi osatua datorkigu Ereintza taldea oraingo honetan. Lehengo "zaharretakoak" dira batzuk, hara nola Arantza Perez, David Gomara eta Sabin Irastorza. Gehientsuenak, ordea, antzezlari gazteak ikusi ahal izango ditu egun horretan kultur aretora hurbiltzen denak: Beñat Arbelaz, Imanol Escudero, Agurne Etxebeste, Olatz Telletxea, Oñeka Oliveri, Jaione Martinez, Denise Itxaso, Eñaut Mitxelena, Josu Izagirre eta, bakarren bat ahaztu ez bazait, Iñaki Tolaretxipi. Andoni Kortaren jarraitzaileek ereindako haziak landare berriak eman ditu ikusten denez.

Antzezlanak, jakina denez, ez dute antzezlariak bakarrik burutzen. Badira, jendaurrean agertzen ez badira ere lan isila egiten dutenak: antzezlariak lagunduz urtetan ari den Joxe Luis Lakuntzarena, edota dekoratuak eta lantzen Sabin Irastorzak semeak eta Idurre Ugaldek egin ohi dutena, materiala garraiatzen laguntzen digun aingeru goardakoarena edo garai batean Arozena haltzari etxeak eta oraintsu Muebles Azkuek luzatu izan duen

laguntza. Udalaren babesa ere eskertzekoa izaten da horrelakoetan.

Euskal antzerkigintzan zer ikusi haundia duen beste alderdi bat aipatu gabe ez genuke utzi nahi: jendearena, alegia. Aretoa betetzen den heinean, ikusleak gozatzen duen neurrian, euskal antzerkiak aurrera egingo du. Andoni Kortari sarritan entzun izan genion esaldia zen "Jendea erakarri eta gozatuko duen moduko antzerkia egin behar dugu". Berak jakin bazekien ikusleak habe garrantzitsua zela, pilotan sakea nork jasoa ezinbestekoa den bezala, antzerkian ikusleak nahitaezkoa zela. Jendeak animatzen zuen Andoni eta bere taldea. Aurtengon ere Ereintzak badu ikuslearen erantzun onaren esperantza.

Esan beharra dago, gainera, talde nahiko orekatua osatzen dutela. Batzuek beren esperientzia eta eskarmentua erakusten dute eta gazteek, berriz, lanerako gogo eta ilusioa. Bada, beraz, aukerarik horrela aurrera egiteko.

Andoni Kortaren itzala

Arestian aipatu bezala, Andoni Kortaren eragina eta itzala nabaritzen zaio taldeari. Andoni gidari zela sortu zen Ereintza antzerki taldea, bere zuzendaritzapean jardun izan zuen hainbat urtetan duela hogeitaka urte, bere heriotzaren hogeitabost urteurrenean omenaldia egin zitzaion eta ondoren, omenaldi haren ondorio gisa, sortu da, esan bezala talde berria.

Maisuaren irakaspenak gogoan hartuz, ikusleak gozarazteko moduko lana aukeratu dute. Ikuslearen jakinmina hasieratik piztu eta arreta erraz bereganatuko duen lana da Urkiola. Entretentua, gairik korapilatsuenak ere era xume eta ulergarrian garatuko dituenak. Neurri-neurriko lana aukeratu dute oraingo honetan.

Euskal antzerkia Madalenetan egin nahi izana ez da, bestalde, kasualitate hutsa. Herriko jaietan edonori, eta batez ere gazteari, ongi pasatzea, juergaren bat edo beste egitea, gustatzen zaion arren, horrelako emanaldi bat eskaintzeak berekin duen lan eta nekea hartu nahi izan dute, besteak beste, garai batean, Andoni Kortak buru zuten garai haietan, urtero urtero, huts egin gabe, jaien



Andoni Kortari egindako omenaldiaren ondorioa izan da Ereintzak osatutako taldea (Ane Lardi argazkia).

programan euskal antzerkia eskaintzen zutela jakinik, orain ere usadio hori berreskuratu nahi izan dutelako.

Euskaldunen topagune

Festetan euskaraz bakarrik oso jai eta ekitaldi gutxi egiten da gure artean. Horietako batzuk, bertsolariak eta euskal antzerkia, aipa daitezke beste bakarren bat gutxietsi gabe. Bertara, euskaldun direnak, euskaraz ikusi, entzun eta gozatu nahi duen jendea hurbiltzen da. Egia da gizartea eta beronen joerak eta gustuak aldatuz doazela. Arrazoi dute orain lehengo konturik ez dagoela aitortzen dutenek. Aldaketak aldaketa, euskaldunontzat topagune izango diren ospakizun hauek zaindu behar ditugu arreta haundiz. Jendearen gustua nolako, erantzuna ere halako izan behar duela ahaztu gabe.

Topagune den aldetik, euskal antzerkiaren eragina mugatua baldin bada ere, baloratzeko kontua da. Aretora hurbiltzen den jendea euskaraz ari ohi da, euskaraz egingo ditu bere komentarioak emanaldian zehar eta euskaraz arituko diren taldetxotan bilduko da irteeran ikusi berri duten obra komentatzeko edota aspaldiko partez lagun zaharrak agurtzeko.

Euskal antzerkiaren geroa

Itxaropentsu izateko hainbat arrazoi bada dudarik gabe. Orain ez dago lehengo konturik. Garai batean erdara hutsean eskolatutako gazteak arituko ziren euskarazko antzerkia egiten. Andonik bazuen horren berri ederki asko. Euskaraz irakurtzeko



justu-justu gai zen jendearekin egin behar izaten zuen antzezlanaren zenbaitetan, idi-pare eskasarekin ere dema on bat egiten gizona baitzen hura. Etxetik kanpora erdaraz bizi ohi ziren gazte haiek.

Orain, aldiz, euskaraz ikasteko aukera badute eta, sarritan nahi baino gehiago erdarara jotzen badute ere, dudarik ez dago euskaraz askoz gehiago egiten dela. Horretaz gain, eskolan gaur egun euskal antzerkia lantzen da, programak eta taillerak martxan jartzen dira. Andoni Kortaren izenean martxoan antolatzen diren topaketak dira horren adierazlerik hoberena.

Gaztetasuna da itxaropentsu izateko beste arrazoietako bat. Lehenago aipatutako antzezleen zerrendan neska-mutil gazte talde majoa ari dela bistan da eta honek antzerkia ikustera gazte jendea ere erakarriko duela pentsatzekoa.

Honenbestez, aurtengoak jarraipena izango delakoan ari dira gaur egun lanean ereintzatarrak.